

TRAIZIOAREN ITZULBIDEAK

Atzerriko hizkuntzaren eta xede hizkuntzaren arteko negoziazio etengabea bizi da literatur itzultzailea; jatorrizko obra traizionatuz sarri, hain justu, harekin fidel izateko. Itzaletako lanbidea da haiena, eta baldintzak makurtzen ari dira. Langintzarekiko pasioak eusten du ofizioa.

Itziar Ugarte Irizar

Traduttore, traditore. Itzultzaile oro da traidore. Hala dio adierazpen italiar ezagunak. Itzultzaileak traidorea behar duela izan; baldin eta jatorrizko obra bere ñabardura eta jite guztiekin eramango badu bere hizkuntzara. Paradoxikoa izan daiteke: batik bat, fidel jokatu behar baitu jatorrizko obrarekin itzultzaileak, itzulitako lanak ere originalak besteko eraginak sortitza irakurlearengan. Noraino askatu jatorrizkotik, noraino mantendu hari estu loturik; tentsio horretan bizi da literatur itzultzailea. Nahiko itzalpean bizi ere; ikusezina baita sarri askotan haren lana.

Juan Garzia Garmendiaren hitzetan (Legazpi, Gipuzkoa, 1955), «traizionatzeko modu asko daude, literalitasun itsutik hasita, eta ez dira itzultzaileak, esaeraren kontra, traidore bakarrak edo zitalenak». Hamaika literatur lan ekarri ditu euskarara Garziak –Borgesena *Ipuin hautatuak*-ekin hasi eta William Shakespearearen *Sonetoak* arte, besteak beste–, eta, edozein modu eta moldetan, gauza bat argi dauka: itzulpen oro dago ezintasunera kondentatuta. Jatorrizko obraren «bertsio bat» izango da itzulpena. «Itzulgai den obratik moldaketak egiterakoan noraino jo daitekeen, edo jo behar den, obraren izaerak eta erabilek seinalatuko du kasuan-kasuan, eta ez du zentzurik aurretiaz doktrina itxi bat izatea horretaz», azaldu du. Hala, itzulpena «arte praktikoa bat» da Garziarentzat.

«Hortik abiatu behar gara; bes-

te obra bat da». Itzulpena ez da inoiz jatorrizko obra izango, argi du hori Bego Montoriok (Bilbo, 1959). Aurrenekoz, Tahar Ben Jellounen *Bakarkako isolamendua* ekarri zuen euskarara, 1990ean, eta ordutik era askotako lanak itzuli ditu. Azken boladan, batez ere, komikiak itzuli ditu; gaztelaniatik eta frantsesetik. Haren ustetan, «zintzo» jokatu behar du itzultzaileak jatorrizko obrarekin, beharrezko «lizentziak» hartuta, lerro artekoa ere ekartzeko; dela musikalitatea, erritmoa, edo testuaren tonua. Metafora batekin osatu du azalpena: «Marmolezko eskultura bat daukazu aurrean, eta egurretan berregin behar duzu. Egurren berezko ezaugarrietara egokitu behar zara. Ezin da berdindu egurra eta marmola, eta hori da gure lana».

Beste modu bateko traiziotzat har daiteke jatorrizko testutik ez, beste itzulpen batetik abiatzen badu bere lana itzultzaileak. Amaia Apalauza Ollo (Iruñea, 1979) ohituta dago horretara. Dovlatoven *Filiala* itzuli du Aroa Huarterekin, katalanezko, gaztelaniako eta ingelesezko itzulpenak erabilia. «Egongo da esaten duenik jatorrizkotik itzultzen ez bada, ez dela fidagarria. Baina obra asko itzuli egin dira zubi hizkuntza bidez», adierazi du. Edonola, zubi hizkuntza bidez itzulpean jatorrizkoan zehatz zer esaten den jakiteko beharra izaten du berak. «Kasu honetan, errusierazkoak zer zioen jakiteko jo nuen Aroa Huarterengana, eta berak lagundu zidan ilun xamarrak ikusten nituen esaldiak argitzen. Punta ateraz, punta ateraz, lortzen duzu bertsiorik fidagarriena», dio. «Azkenean, irakurri beharko genuke euskaraz Dovlatov,

Dovlatovek euskaraz idatzi izan balu bezala. Ez genuke itzultzailearen ahotsa nabaritu behar, baina guretik ere ematen dugu, dudarik gabe».

Itzulpena «beste obra bat» dela ez du hain argi ikusten Gerardo Markuletak (Oñati, Gipuzkoa, 1963). «Guk ezin dugu beste obra bat idatzi, berbera idatzi behar dugu; jatorrizko hizkuntzak eta itzuli hizkuntzak uzten diguten neurrian, zeren beti dira hizkuntza diferentek, mediazioak behar dira, eta horretarako dago, hain justu, itzultzailea».

Aberatsa, dirutan salbu

«Gerardo izango da gurean literatura itzultzetik biziko den bakarrerenetakoa, bakarra ez bada», aipatu du Montoriok. Eta hala baieztatu du Markuletak berak: «Bizi, gainbizi, biziraun. Oso modu apalean. Literatura itzultzea oso lanbide aberasgarria da, baina zentzu metaforikoan bakarrik. Nik, hala ere, oso maite dudana lan bat da; etxean egiten dut lan, literaturaz eta idazlez inguratuta... Barrutik oso aberasgarria da». Ez da literatur itzultzaile gehien egoera, ordea. Montorioren esanetan, literatur itzultzaileak «nahitaz» egin behar ditu beste lan batzuk; egun, itzulpen irakaskuntzarekin bateratzen du berak. Apalauzak berretsi du: «Literatura itzultzea beti da lan orduetatik kanpo egiten dugun zerbait, beste plazer bat ematen dizuna, noski, baina diruz ez da errentagarria ateratzen».

Aho batez diote azken urteetan lan baldintzak okerrera egin dutela. Egungo aldarrikapen nagusiak, batik bat, epeei eta ordainketi lotuta aipatzen dituzte. Montoriok: «Hori gabe ezin da ezer lortu.

150 orri bost egunetan eskatzen dizute, eta ez da posible». Ildo bertsutik Apalauza ere: «Askotan sentitzen dugu nahi dutela azkar, ongi eta, gainera, merke». Tarifekin dute, gaur egun, borrokarik handienetako bat. «Merkatua, oro har, prekarizatu da; ez itzulpeginzarena bakarrik». Apalauzaren esanekin bat dator Markuleta: «Azkenaldian, krisiaren aitzakia-rekin, baldintzen kaskartze sakon bat egon da. Baina inoiz ez da ondo ordaindu lan hau. Eta, gainera, esango nuke Euskal Herrian apurtxo bat hobeto ordaintzen dela. Euskaratik gaztelaniara itzuli dudanean, merkatu handiago batera joanda uste nuen baldintzak hobek izango zirela, baina ez, askoz okerragoak aurkitu ditut». Horren atzean lanbidearekiko aitortza falta ikusten du berak: «Ez zaio ematen daukan garrantzia. Itzultzaile gabe ez dago literaturarik, baina inore ez da horretaz ohartzen. Sartzen dugun ordu pila ez da ordaintzen. Kalkulua egingo banu nire ordu batek zenbat balio duen konparatuta beste edozein langilerenarekin, eta ez dut egiten beldurratetik, seguru nago galtzen aterako nintzatekeela».

Batik bat, enkargu bidez egiten du lan itzultzaileak. Enkargurik gabe ez dagoela itzulpenik dio Markuletak. «Idatzi eta gero hasia argitaratuko dizun norbaiten bila sorkuntza lanekin gertatzen da, baina itzulpenekin ezin da halakorik egin». Enkargurik izan gabe, ez du sekula gustuko obra bat osorik itzuli. «Behin gertatu zait enkargua eta argitaratzeko promesa izan, kobratu eta gero ez argitaratzea. Kaxoi batean geratu zen. *Platero eta biok* zen lana, Juan Ramon Jimenezena. Laban-kada larria izan zen».

Itzulpen lan bat argitaratzea, oro har, «nahiko zaila» dela iruditzen zaio Apalauzari. «Mutturra sartzea da kontua, eta ez etsitzea», dio, eta Literatura Unibertsala bilduma «trapolin bat» dela horretarako: «Mundu horretara jauzi egiteko, eta norbere burua trebatzeko. Halako aukerak aprobeztatu egin behar dira gurean».

Errezeloak eta ekarpenak

Argitaratzen diren itzulpenak kalitate mailan asko irabazi dutela ados dira. Aldiz, euskarazko itzulpenekiko «nolabaiteko aurreiritziak» bizirik dirauela uste du Montoriok. «Jendeak nahiago du euskaraz jatorriz idatzitakoa irakurri, euskarara ekarritakoa baino. Literatura Unibertsaleko liburuek, adibidez, oso salmenta txikia dute, ez dugu lortzen irakurlearengana heltzea». Urrunago joan da Garzia: «Euskaldun askorentzat, euskarak bere txoko diglosikoa baino ez du betetzen. Sintomarik nabarmenena, baina ez inondik ere bakarra, filmen bikoizketen porrot etsigarria da. Hizkuntza guztietan bezala, prozesu bat da hizkuntza horretan mundu zabal osoa adieraztera iristea eta hiztunak ohitu eta normalizatzea; gurean, hala ere, hainbatek harro baztertzen ditu bere txokoko arrunkeriataxetatik haragoko guztiak; gainerako-etarako, erdara du noski».

Ustezko zailtasuna eta ohitura falta «sorgin gurril bat» da Montoriorentzat. «Unibertsitatean ikusten dut: euskaraz ikasketak egin dituzten euskaldunek askotan gehiago landu dute irakurtzeko gaitasuna erdaretan euskaraz baino, eta horrek baldintzatzen du euskarazko irakurketa. Arazo bat da, euskaldunok balio altuko kultura hori euskaraz jasotzea ere garrantzitsua baita».

Apalauza ez da hain ezkorra. Euskarazko itzulpenekiko errezeloak gaintzen ari direla uste du, eta lan itzuliak irakurle taldeetan maizago irakurtzen direla da horren erakusgarri harentzat.

«Lehen baziren aurreiritzi kaxkar batzuk, etxekoa literatur itzulpenaren aurretik jarri behar zela, eta itzulpenak ez zirela benetako euskara... Hori asko leundu da», erantsi du Markuletak. Euskarazko literatura itzuliarekin gozatzen dutenak gero eta gehiago diren inpresioa du hark ere.

Neke berezi eta sarriak

Euskararen «garapen fasean» ekarpen handia egin badu ere itzultzaileak, hori berori oztopo



«Beti da lan orduetatik kanpo egiten dugun zerbait; beste plazer bat ematen du, baina diruz ez da errentagarria»

Amaia Apalauza Ollo
Itzultzailea

izaten da aldiro euskal itzultzaile-arentzat. Hala azaldu du Garziak: «Euskararen garapen fasea kon-tuan harturik, aurretik landu gabe dauden erregistro eta estilo-ak berak sortu eta irakurleari ahalik eta sinesgarrien egitea da neke berezi bezain sarria gurean, kultura hizkuntza helduagoeta-ko itzultzaileekin alderaturik». Hizkuntza bikote bat edo beste izan, Garziarentzat, alderik handiena ez du hizkuntzak markatzen, idazkerak baizik. Nolanahi ere, itzultzaileak hizkuntza bakoitzarekin duen harremanak ere baldintzatzen du itzulgaiare-ko lana, Garziaren esanetan. «Batuetan, gehiegi tira egin



«Genero jakin bateko itzulpen bati ekiten dionak trebaturik egon behar luke generoko testuak berak sortzen»

Juan Garzia Garmendia
Itzultzailea

lezakete itzulgaiaren ñabardurek ondoegi ezagutzen dugun hizkuntza batean datorrenean, eta ondo dator, beharbada, arrotzago izatea hura, xehekerietan ez galtzeko».

Montorioren kasuan, erdaretatik euskarara ekarri lan bat, edo alderantziz, alde handia igartzen du. «Nola planteatzen dudun itxaro Borda erdaratzea, edo Edorta Jimenez, ez dauka zer ikusirik». Nolanahi ere, formarekiko tentsioa izaten da, harentzat, itzultzailearen erronketan zailena. Forma ekartzeko xede hizkuntzan oinarri sendoa behar dela dio, hargatik. «Lana gehiago izaten da askotan egiaztatzea zuk



«Itzultzaile gabe ez dago literaturarik, baina inor ez da horretaz ohartzen. Sartzen dugun ordu pila ez da ordaintzen»

Gerardo Markuleta
Itzultzailea

uste duzun ñabardura hori duen hitzak, edo corpusetan begiratzea ea hala erabili izan den», aipatu du.

Markuletarentzat ere korapilo askatzen zailenak «testualak» izaten dira: doinua harrapatzea, erritmoak imitatzea. «Euskaratik gaztelaniara harrapatua diot musika, baina frantsesetik edo katalanetik euskarara tokatzen zaidanean zailtasun handiagoak ditut musika hori gurean emateko. Er-latibozko famatuak ere hor daude, hizkuntza erromanikoetan etengabeak dira, eta euskaraz ez du zentzurik», zehaztu du.

Apalauza Kazuo Ishiguroren *The Remains of the Day* itzultzen



«Marmolezko eskultura egurrean berregin behar da. Ezin da berdin landu egurra eta marmola; eta hori da gure lana»

Bego Montorio
Itzultzailea

ari da orain, Iñigo Roquerekin batera –Literaturako nobel saridunak euskaratzeko Jokin Zaitegi lehiaketa irabazi ostean–. Itzulpen honetan, erronka erregistroan asmatzean dute: «Ezin dugu idatzi Axularrek idatziko lukeen bezala, ez luke zentzurik, baina estilo jaso bat izan behar du, goi klaseko giroa jasoko duena. Dena oso hierarkizatua dago: maiordomoa, laguntzailea, neskamea, bizkartzaina... eta giro hori euskaraz Euskal Herrian ez dugu ezagutu. Badago terminologia bat berririka dena guretzat. Erabakitzen ari gara».

Erabakiak hartu. Horretara beharturik dago itzultzailea. Eta

itzulgaia zein generotakoa den ere, bada alde. «Eleberrri bat eta poesia liburu bat irakurtzen dituzunean dauden alde berberak», laburtu du Markuleta. «Poesia itzultzeko ez da derrigor poeta izan behar, baina bai izan behar da poesia irakurle amorratua», gehitu du gero. «Daukagun lexikoa daukagu, eta beti bilatuko dugu laburrena, eta laburrena segur aski ez da oso erabilia izango, eta hor hasten gara tranpak egiten, eta poema beste leku batzuetara eramaten. Inportanteagoa da poeman gertatzen den komunikazio ekintzari eustea, errima eta neurriari ez hainbeste».

Azkenaldian, euskal idazleen lanak gaztelaniara eramateko enkarguak jaso ditu Markuleta; Harkaitz Canoren *Twist* eta Anjel Lertxundiren *Zu*, esaterako. Kasu horietan, lanaren autorea gertu izatea laguntza handia izan daitekeela dio Markuleta. «Zatika bidaltzen joaten naiz, eta bueltan ohartxoak jasotzen ditut. Baina 'itzultzailea hi haiz e' esaten dizute. Azken hitza itzultzailearena

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(Aurreko orrialdetik dator)

izaten da. Behin edo behin, epearekin presaka genbiltzala-eta, bukaera aldera, egileak berak itzuli zizkidan kapitulu pare bat, eta zoragarri imitatu zuen itzultzailea, ez da ezer igartzen. Canoren *Twisten*».

Itzultzailea ere idazle

Markuletaren lehen itzulpenak bere poema propioak izan ziren; gaztelaniaz idatzitakoak euskaratzen hasi zen itzultzen. Egun, itzultzetik atsedean hartzen duenean jar daitekeela sortzera dio; itzulpena ez da sormenarentzat atsedean bide bat harentzat, kontrakoa baizik. «Etengabe ari naiz literatura itzultzen; nobela bat ez bada, poema liburu bat, haur literatura... Halako batean enkargurik gabe geratzen banaiz, orduan jartzen naiz paper zaharrak arakatzen, poema berriak idazten». Hori bai, itzulpenari esker jantziago sentitzen du bere burua sortzeko orduan. «Itzultzean aurkitutako baliabideak nire ganbarara doaz, eta sortzean alde edo moldez atera egiten dira».

Garziak lau narrazio liburu eta eleberri bat argitaratu zituen 1987-1996 bitartean. Haren ustez, literatura idatzi nahi duenarentzat entrenamendurik onena izan daiteke itzultzearen ariketa, «hizkuntzaren alde tekniko lantzeko eta garatzeko behintzat». Ikuspegiari buelta emateari ere ikusten dio zentzua: «Genero jakin bateko itzulpen bat egiteari ekiten dionak aurretik trebaturik egon behar luke genero horretako testuak berak sortzen». Ofizioarekiko «obsesio puntua» ere behar dela dio.

Asko eta denetik irakurri, idatzi, eta itzuliz ikasten dela itzultzen, hori da Markuletak atera duen ondorioa; hori izan da, bederen, bere eskola. Hizkuntzen arteko zubia nola, irakurle berriaren eta obra originalaren artekoa ere bada itzultzailea, eta hor dago sekretua harentzat. «Askotan esaten da *traduttore, traditore*, itzultzailea traidore. Normalean, jatorrizko testuarekiko erabiltzen da, egilearekiko, eta uste dut leialtasuna beharrezkoa dela alde bietara; itzultzaileok tratua daukagu egilearekin, baina baita testu jatorrizko testuarekin fidelegi edo irakurlearekin fidelegi. Jasoko duena irakurlea da, eta ezin gara jarri filologiko planean ezta ere. Irakurleak behar du iritsiko zaion testu bat. Oreka horretan dago gakoak».

30 urte bete zituen 2017an EIZIEk. Dena zegoen egiteko sortu zenean, eta hamaika egitasmorekin sektoreari babesa, prestakuntza, kalitatea eta ikusgarritasuna ematea lortu du denbora honetan.

EIZIE, hutsetik abaro bat

I. Ugarte Irizar

Iazko udazkenean 30. urtemugara heldu zen EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak. «Hutsetik zerbait izatera pasatzearen sentipena» zuten garai hartan itzultzaileek, Juan Garzia Garmendiaren hitzetan, «artean haztamukako esperimentu modukoak baitziren tantaka plazaratzen ziren itzulpenak». Elkarteak sortzeko asmoa Martuteneko (Donostia) itzultzaile eskolan sortu zela ekarri du gogora Bego Montoriok. «Hango irakasle eta ikasleen artean *Senex* aldizkaria ateratzen hasi ziren, eta, aldi berean, administrazioan itzultzaile kopurua handituz joan zen, baita ikus-entzunezkoetan eta alor guztietan ere; bat-batean, asko hazi zen kopurua. Zein behar zeuden? Denak!».

Nabarmen aldatu da euskarazko literatur itzulpenaren argazkia orduetik, eta EIZIEk funtsezko zeregina izan du horretan; sektoreko profesionalen babesa eta prestakuntza eskaini die, eta euskaratik eta euskarara egiten diren itzulpenen kalitatea eta itzulpenegintza bera sustatzeko isilpeko lan etengabean aritu da, Montorioren arabera. Ez zen hasierako taldeko kide izan, baina urte luzez egon da zuzendaritza taldean, eta gertutik ezagutzen du elkarteak egin duen bidea. «30 urteotan langintza bera, bai itzultzaileena bai interpreteena, onar-

Elkartearen erronka handienak lan baldintzetan eta etengabe egokitu beharrean izango direla aurreikusten dute

tuz joan da. Jendea hasi zen oharitzen ez zela nahikoa bi hizkuntza jakitea itzultzaile jarduteko, horrek eskatzen zuela beste prestakuntza bat».

Urte askoan, elkartearen «ardatza» Literatura Unibertsalaren bilduma izan dela dio Amaia Apalauza Ollok –literatura klasikoko 171 izenburu ekarri ditu gaur artean euskarara-. EIZIEko lehendakariordea da egun Apalauza, eta aiptu du azken urteetan elkartearen jarduerak dibertsi-

fikatzeko jarri dutela indarra: «*Senex* aldizkariak aurrera jarraitzen du, ikastaroak eta prestakuntza asko indartu da. Garrantzia ematen diogu beste herrialdeetako itzultzaileekin harremanak izateari eta, bereziki, lanbidea zaintzeari; itzultzaileen eta interpreteen keak jasotzen ditugu, eta lan baldintzen jarraipen bat egiten dugu».

Egun, 400 bazkide inguru ditu elkarteak; itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteak denak. Hala, EIZIEk sektoreari batasuna ematea lortu duela nabarmendu du Montoriok. «Itzulpenegintza euskaraz ekoizitakoaren parte handi bat da, eta EIZIE oso garrantzitsua izan da hizkuntzari egiten dion ekarpenaz jabetu eta gogoetarako espazio bat izateko».

Hizkuntzari itzulitakoa

Euskarazko itzulpenegintzarena ez da azken hogeita hamar urtean aurrerabide sendoa izan duen arlo bakarra, eta, horren jakitun izanda ere, «itzulpenegintza gero eta oparagoak euskarari izugarriko aurrerapausoa» ekarri diola azaldu du Garziak. Hori ho-

rrera, orain iraunkortasunari lortuta ikusten du egin beharrik premiazkoena: «Etsi, gogaitu edo aspertu gabe jarraitzea lanean halako aurrerajauzi ikusgarririk izango ez den zabaltze eta sendotze bide etengabea. Hizkuntza arrotz bat ikastean lehen koska gaintu ondoren datorren ikasordeka luze monotonoarekin gertatu ohi den bezalatsu, alegia».

Aurrera begira, elkartearen erronkarik handienak itzultzaileen lan baldintzetan eta etengabe egokitu beharrean izango direla aurreikusten du Montoriok: «Egun, aldaketak bizkorragoak dira, eta prest egon behar dugu datozen aldaketa eta beharren aurrean».

Orain arte lanak utzi duen lor-

pen batekin gelditzen da Apalauza: itzulpenaren garrantzia inor gutxik ipintzen duela egun zalan-tzan. Halaxe defendatu du: «Munduko literatura euskaraz irakurtzeko modua eduki behar dugu; jatorrizko hizkuntza guztiak ezin ditugu ikasi, eta beharrezkoa da itzulpena. Hainbeste liburu eder dago irakurtzeko! Liburuek merezi dute irakurriak izatea, eta guk ere merezi dugu horiek irakurtzea gure hizkuntzan. Itzulpena da daukagun baliabiderik onena kanpoko lanetara iristeko. Ez da bakarrik lan bat ezagutzea, horren atzean dagoen dena da; herrialde bat, kultura bat, eta horretaz gozatzeko aukera izatea; horregatik ematen dizkiot nik neuk merezimendu guztiak itzulpenegintzari».

